



Ekonomia > Lehen sektorea > Sagardo denboraldia

Abian da txotx denboraldia

“Inflazio eta igoeren gainetik ilusioa eta pasioa elkartuta” aurkeztu du Euskal Sagardoak txotx denboraldia. Sektoreak “pozik” hasiko du sagardotegi garaia, bi urteren ondoren txotxetik dastatu ahal izango delako sagardo berria.



ARGIA @argia

2023ko urtarrilaren 11 - 12:00

"Aurtengo denboraldia aspaldian espero genuen moduan hasi ahal izango dugu: sagardo berria kupeltegian dastatuz", azaldu dute **Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako sagardogileek**. Aurten, berrikuntza moduan, zenbait sagardotegik dastatze gidatuak eskainiko dituzte otorduaren aurretik. Halaber, sagardotegi gehiagok eskainiko dute mahaia Internetez erreserbatzeko aukera.



Euskal Sagardoak azaldu du sektoreak %25 inguru igoko duela sagardoaren prezioa 2023an, egoerak eragindako kostu zuzenen igoera dela eta: “Inflazioak eragindako igoerek eragin zuzena dute sagardoaren kostuetan ere, beiraren, kartoiaren, energiaren eta gasoilaren igoerak eraginda nagusiki. Guztiak egin du gora eta sagardoak ere gora egingo du ezinbestean, lehendik ere errentagarritasun baxuko produktua izaki, gaur egungo egoerara moldatzen joateko”.

“Bertako nekazaritza, industria, ostalaritza eta banaketa sistemak uztartzen dituen eremua da sagardoa”, diote sagardogileek. “Bertako ekonomia sustatzen du, lanpostuak eta aberastasuna bertan sortuz. Baina sagardogintzak, bideragarria izateko, eskaintzen duenaren neurriko prezio bat behar du. Sagardoari merezi duen aitortza eta balioa jarri behar zaio”.

Uzta txikiagoa baina izaera handikoa

Espero zitekeen moduan, aurtengo uzta iazkoa baino txikiagoa izan da, baina “izaera handiko sagarra etorri da bai tanino baita azukre aldetik ere”, jatorri deiturako ordezkarien hitzetan. Emandako datuen arabera, Euskal Sagardoa jatorri deiturapean 1,2 milioi sagardo litro inguru ekoiztu da. Bestalde, Euskal Sagardoa egiten duten sagardotegiak 48 dira (2 arabar, 4 bizkaitar eta 42 gipuzkoar), eta Euskal Sagardorako sagarra egiten duten sagargileak 250. 2022an 2 milioi kilo sagar bildu dirtuzte.

Sagardoaren ezaugarriei dagokienez, gaineratu dute alkohol graduazio handixeagoa izango dutela iaz baino.

Sagardo berria dastatzeko parada

Sagardogileek aste honetan hasi eta pixkanaka irekiko dituzte beren ateak. Bitartean, izango da aukerarik sagardo berria dastatzeko. Gaur, astezkena, Sagardoaren Lurraldeak antolatuta, **Sagardo Berriaren Eguna** ospatuko da Astigarragako Sagardoetxean lehendabizi eta Alorrena sagardotegian segidan. Aurtengo gonbidatuak Aitziber Garmendia eta Jon Plazaola aktoreak izango dira. Ostegunean, bestalde, Trebiñu Sagardotegian euren ohiko ekitaldia egingo da, baita Goierriko sagardogileena ere Ataungo Urbitarten.



Txotx denboraldia, bertako plazerra!



Kanal honetan artxibatua: Sagardo denboraldia



2021-01-20 | Usurbilgo Noaua

Sagardoa txotxetik mahaira, otsailean hasiko den denboraldi berrian

Urte garai honetarako dagoeneko sagardotegiek zaletuez gainezka behar zuten honez gero. Ilara luzeak edari berria dastatzeko irrikan. Jendetza mahaien bueltan, kupeletan. Pandemian gaude ordea eta halako irudirik ez da errepikatuko aurtengoan. Txotx denboraldi berria izan izango... **[+]**



2018-01-22 | Ainhoa Azurmendi Echegaray

Sagardo denboraldiaren irekiera

Hernaniarra naiz. Sagardozalea. Eskubaloira jokatu dudan hogeitau urteetan ezagutu ditudan emakume gehienek, nazioarte mailan jokaturako kirolari handiak barne, nik bezain beste gozatzen zuten sagardotegian garaipenak ospatzen genituenean, edo talde sentimendua kupel artean... **[+]**



2018-01-11 | Urumeako Kronika

Zaporeak proiektuak irekiko du larunbatean, Hernaniko txotx denboraldi berria

Eguerdiko 13:00etan emango dio hasiera, proiektu solidarioak, 2018ko sagardotegi garaiari. Aurretik, trikitilariak eta Kalez Kale Kantariko kideak ibiliko dira herriko kaleetan, eta kirikoketa erakustaldia egingo dute Plazan. Irekieraren ondoren, bazkaria egingo dute Goiko... [\[+\]](#)

2017-07-28 | Bego Zubia Gallastegi

Sagardoa bidegile

MULTIMEDIA - DOKUMENTALA



2017-07-02 | Garazi Zabaleta

Zazpi herrialdeetako sagardoa Hendaiaiko Sagarno Egunean



elkarteak.

Aurtengo festan egon da nobedaderik: Zazpi herrialdeetako Sagarno Eguna izan... [\[+\]](#)

IRAKURRIENAK



- 1** Guraso horiek
- 2** Espainiako Poliziak ikurrina eta Nafarroako bandera kendu ditu Osasunaren zelaitik
- 3** 13 urteko umearen suizidioak eskola jazarpenaren arazoa berrazaleratu du Frantziako Estatuan
- 4** "Elektriaren mafiei aurre egiteko" jarraibideak eman ditu Ehunek
- 5** Curriculum Digitala eta berrikuntza pedagogikoa: prozedurak berraztertu behar dira

AZOKA



Ilargia eta landareak 2023 urteko lanen agenda

14,00€

EROSI

ARGIA BULETINA

Egunaren laburpena
zure e-postan





EMAN IZENA

☐ **Pribatutasun politika** irakurri dut eta onartzen dut

EGUNEKOA
POLITIKA
NAZIOARTEA
GIZARTEA
KULTURA
EUSKARA
EKONOMIA
ASTEKARIA
MULTIMEDIA

Kontaktua


Pribatutasun politika

Ezabatu Mastodon cookie-a

RSS jariora

Iragarri

Egin ARGIAkoa



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratzeko libre zara, beti ere, gure egiletza direla aitortzen baduzu eta baldintza beretan egiten baduzu.



Ekonomia sozial eraldatzailearen sareko kide da ARGIA. Informazio burujabetza helburu, egunerokoan gauzak egiteko beste modu batean sinesten dugu.



ARRASATEKO UDALA

